

ANNE FRANK



Anneliesse Marie (Anne) Frank (Frankfurt, 1929ko ekainaren 12a - Bergen-Belsen, 1945eko martxoa) alemaniar judu bat zen, idatzi zuen egunkaria dela-eta ezaguna, Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi ezkutuan zenean idatzia.

Frankfurt hirian jaio zen, eta Otto Heinrich Frank eta Edith Hollander zituen gurasoak. Margot Frank zen ahizpa zaharrena.

Annek lau urte eta erdi zituela, familia osoa aldatu zen Amsterdama, naziengandik ihesi. Annek 13 urte bete zituenean oparitu zioten egunerokoa idazteko liburuxka. Berehala izan zuten ezkutatu beharra eta *Achterhuis* etxean sartu ziren, apal baten atzean ezkutatzen zen ate batek salbaturik.

1942ko uztailaren 9tik 1944ko abuztuaren 4ra arte egon ziren etxe horretan, ordurako, alemaniarrek Amsterdam osoa okupatu baitzuten. Zortzi pertsona zeuden zulo hartan: Otto eta Edith Frank (gurasoak); Anne eta haren ahizpa Margot; Dussel (Fritz Pfeffer izeneko dentista judua); eta Van Daan senar-emazteak, haien seme Peterrekin batera (haien abizena Van Pels zen).

Urte haietan zehar, Annek egunkari batean idatzi zituen bere beldurak, Peterrenganako atxikimendua, gurasoekiko gatazkak... Idazle aparta izateko tankera zuen, eta bera konturatuta zegoen; naziak harrapatu baino hilabete batzuk lehenago, egunkari hura garbira pasatzen hasi zen, gerra amaitutakoan argitaratuko zuelakoan.

Berak ezin izan zuen, ordea. Miep Giesen, Elly Vossen eta beste batzuen laguntzaz bi urte ezkutatuta eman ondoren, herbeheretar batek Gestapori erakutsi zion ezkutalekua, eta

atxilotu zituzten. 1944ko irailaren 2an tren baten sartu zituzten, eta 3 eguneko bidaiaren ondoren, Auschwitz iritsi ziren.

Miep Giesek eta Elly Vossenek Anneren egunkaria aurkitu eta gorde zuten.

Anne, Margot eta Edith Frank, Pels familia eta Fritz Pfeffer ez ziren kontzentrazio esparru haietatik bizirik aterako. Margot eta Anne

Auschwitz-Birkenaun egon ziren hilabetez,

eta gero Bergen-Belsena bidali zituzten;

hantxe hilko ziren, tifusak jota, 1945eko

martxoan. Otto izan zen handik bizirik atera zen bakarra.



Miepek Anneren egunkaria eman zion familia osoa galdu zuen aitari, eta Ottok handik urte batzuetara argitaratu zuen *Anne Franken egunkaria* eta 55 hizkuntzatan irakur daiteke, euskara barne.

Anne eta Margot Franken hilobia Bergen-Belsengo kontzentrazio esparrua zegoen lekuan dago.

Irakurri Anne Franken biografia eta bete datuak eta erantzun galderak:

Benetako izena:

Jaiotze data:

Jaiotze herria:

Aitaren izen-abizenak:

Amaren izen-abizenak:

Lau urterekin nora joan zen bizitzera?

Zenbat urte zituela oparitu zioten egunerokoa?

Non ezkutatu ziren?

Zenbat pertsona egon ziren ezkutalekuan?

Noiz atxilotu zituzten?

Zergaitik pasa zuen egunkaria garbira?

Nork aurkitu zuen egunerokoa?

Non hil zen Anna?

Nola hil zen?

Noiz hil zen?

Zenbat hizkuntzataraz itzuli dute Anne Franken egunerokoa?

Euskaraz irakur al daiteke eguneroko hau?

Non dago Anne Franken hilobia?